

ESKOLAKO AGENDA 21

5. alean

AGENDA 21 ESCOLAR

5º ejemplar

ENKARTERRI- EZKERRALDEA

Tema de trabajo
2008-2009ko lan gaia



Agua / Ura




Eskolako Agenda
Agenda Escolar

Har ezazu parte eskola eta herria hobetzeko!

!Participa para mejorar tu escuela y tu municipio!



Los centros escolares de Abanto-Zierbena, Barakaldo, Ortuella, Portugalete, Sestao y Trapagarán siguen avanzando en el proceso de Agenda 21 Escolar sensibilizando a toda la comunidad educativa y diagnosticando la gestión del agua, tanto en el mismo centro como en el entorno municipal. Además, han realizado Jornadas técnicas en los Ayuntamientos para resolver las dudas que les han surgido a los alumnos y alumnas sobre la gestión del agua.



ÍNDICE

<i>Dolores Ibarruri BHIk EA21en inguruan burutzen dituzten hainbat ekintza. ABANTO-ZIERBENA</i>	1
<i>Gabriel Celaya LHI: Enbalaje, enblaje eta enbalaje gehiago!!!. PORTUGALETE</i>	2
<i>Zubeldia eta A21: Aurtengo gaia: "Ura". PORTUGALETE</i>	3-4
<i>Burdinibarra BHI eta Eskolako Agenda 21. TRAPAGARAN</i>	5-6
<i>Karrantzako institutoak argazki lehiaketa antolatu du. KARRANTZA</i>	7
<i>Ortuellako San Felix Ikastetxea. ORTUELLA</i>	8-9
<i>Ortuella BHI. ORTUELLA</i>	10
<i>Martxoaren 23an "Uraren Eguna" ospatu genuen Sestaon. SESTAO</i>	11-12
<i>Jornada técnica de Sestao. SESTAO</i>	13
<i>Beurko institutoa Madrilen. BARAKALDO</i>	14
<i>Barakaldoko ikastetxeak Eskolako Agenda 21 programan aurrera doaz jardunaldi tekniko bat eginez. BARAKALDO</i>	15

ABANTO-ZIERBENAKO DOLORES IBARRURI BHIK ESKOLAKO AGENDA 21 INGURUAN BURUTZEN DITUZTEN HAINBAT EKINTZA

Urtarrilaren amaieran berriro etorri da Autobus Berdea gure Institutura. Ordenagailuen bidez URARI buruzko informazioa jasotzeaz gain, saioa dibertigarria izan da.



Gabonetako Jaian argazki txapelketa antolatu genuen. Berriro, gure gaia "URA edozein egoeratan" izan zen. Oso kalitate handiko argazkiak aurkeztu ziren eta oso zaila zen irabazleak aukeratzea. Hara hor Txapelkunak, zuen gustokoak dira???

Zuhaitz eguna aurreratu da gure zentroan. Otsailaren 19n heldu ziren institutura 6 zuhaitz eta, nola utzi hor bere eguna heldu arte!! Erabakia erreza zen, ahalik eta lasterren landatzeko beharra geneukan!!



GABRIEL CELAYA LHI:

ENBALAJE, ENBALAJE ETA ENBALAJE GEHIAGO!!!

Oso pozik gaude eskolan altzairu eta ordenagailu berriak dauzkagulako. Gela batzuetan armairu, apalategi, mahai eta aulkiak estreinatu ditugu. Ze ondo geratu diren! Orain zaindu egin behar dugu.

Ordenagailu berriei esker orain informatika gela osatzeaz gain, ikasgela guztietan ordenagailua dugu.



Baina hondakin kopuru handia sortu da eskolan, batez ere kartoia eta plastikozko mota desberdinetako hondakinak. Zer egin? Badakigu aukeratze-bilketa egiten baina dena den... Dena botako dugu?



Gure andereño Agurtzaneri, ikusi bezain laster, bururatu zaizkio ideia batzuk, oso baliagarriak direnak. Guri asko gustatu zaigun medusa nola egin jakiteko asmoz, elkarrizketa txiki bat egin diogu berari eta oso erraza dela esan digu eta bat-



batean bururatu zaizkiola. Guri ez zaigu hain erraza iruditzen. Bere gelara joan gara eta ikusi dugu nola irakasten dien txikiei. Ze nolako artistak! Gainera oso apropos datozkigu aurtengo gaia, ura hain zuzen ere, lantzeko.

Oraindik lan handia geratzen da, bukatu, margotu, itsaso maketa prestatu... Kultur Ihardunaldietan antolatuko dugun erakusketa bezalakorik ez duzue inon aurkituko.



Beitu eta zeuk erabaki...



ZUBELDIA ETA AGENDA 21: AURTENGO GAIA: "URA"

Bi urte hondakinen gaia landu ostean, eskolan nahiko finkaturik geratu egin da kontsumoa murriztu behar dugula, gauzak berrerabili behar ditugula eta hondakinak sailkatu behar direla birziklatzeko.




Kurtso honetan zehar urari buruzko lan bezain ona behintzat burutu nahi dugu. Hasteko AGENDA 21en Eguna ospatu dugu.

Lehenengo gauza izan da Konpromisoekiko dekalogo bat burutzea eta onartzea. Gero esaldi bat asmatu dugu, letren barruan umeez egindako autorretratuak itsasteko eta ondoan taldeen argazkiak. Aurten urdinez jantzita etorri gara nolabait irudikatzen "Lurra, Planeta urdina". Esaldia hauxe izan da:

URA BIZITZARAKO EZINBESTEKOA DA



Esaldi hau pasabide nagusian kokatu dugu. Berarekin batera "ur-tanta" erraldoiak margotu ditugu eta bertan konpromisoetan agertzen ziren aholku batzuk idatzi ditugu.



Eta beste pasabideak apaindu ditugu ere, Haur Hezkuntzako pasabideak barne.



Amaitzeko, ohar baten bidez egindakoa jakinarazi genien gure gurasoei eta egindako lanak ikustera etortzeko gonbidapena luzatu genien.

Baina hau ez zen egin genituen gauza bakarrik. Ekintza gehiago egin genituen gero:

- ◇ *Marrazkiak egingo ditugu mural handi bat eskailleraren zuloan eskegitzeko.*
- ◇ *Pelikulak aukeratu ditugu ikusteko eta urari buruz hitz egin dugu: uraren zikloa eta bere ezaugarriak ezagutu, bere erabilera, bere beharra,...*
- ◇ *Itsasoko animaliak ezagutu ditugu.*
- ◇ *Leihoak apaindu ditugu akuarioak balira bezala.*
- ◇ *Urari buruzko olerki bat kopiatu dugu orri batean eta gero buruz ikasi dugu.*
- ◇ *“Fluvi” jolasarekin ibili gara ordenagailuetan (LH 1. zikloan).*
- ◇ *Haur Hezkuntzan “Ur tanta” eta “elurrezko panpina” ipuinak kontatu dituzte.*
- ◇ *Orain bagaude inkesta bat prestatzen eta gurasoei eramango diegu etxeko diagnostikoa egiteko. Geroago, ikastaro bat eskainiko diegu gure jokaera hobetzeko, energiaren eta uraren gastua murrizteko aholkuekin.*
- ◇ *Gure web orrian aholkuak eskegi ditugu energiaren kontsumoa murrizteko*

Gure Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoen ordezkariak Portugaleteko jardunaldi teknikoan parte hartu zuten.



Orain eskolako diagnostikoa egiten ari gara:

- ◇ *Txorrota guztien gastua neurtzen ari gara; gero pentsatzeko zer egin daitekeen murrizteko*
- ◇ *Ur kontagailuak aztertu ditugu eskolako gastu orokorra ezagutzeko*
- ◇ *Baina guzti honekin ez gara ahaztu gure ortuaz eta eskolako lorategiaz*



guzti honen eta gehiagoren berri...

www.zubeldiaikastola.net → **Agenda 21**

BURDINIBARRA BHI ETA ESKOLAKO AGENDA 21

Kaixo

Hemen gaude berriro azaltzeko zer egin dugun Institutuan Agenda 21ean urritik hona.

Urriaren 31an ospatu genuen Agendaren eguna. Honetarako GUZTIOK, ikasleak, irakasleak, ez irakaleak, berdez jantzita etorri ginen eta bakoitzari eman zitzaion begizta berde bat. Honekin batera, egun batzuk lehenago, Txoko berteetako patruila berdeek apaindu zituzten txoko berdeak Urari buruzko informazio berriarekin. Hemen dituzue egin genituen kartela eta iragarkia.



Sentsibilizazioarekin jarraitzeko Uraren Ametsaren bideoak mailaz maila ikusi ziren zenbait irakasgaitan galdera batzuei erantzunak ematen.

Gabonak baino lehen Eusko Foru Aldundiko Autobusa institutura etorri zen ikasle guztiek programa berri bat ikus zezaten.

laz egin genuen bezala, irakasleen artean antolatuta
genuen Argazki txapelketa bat urari buruz. Sariak
Gabonak baino lehen eman genituen. Oso argazki
politak egin zituzten. Ikus dezazuen hemen duzue bat.



Gabonak heltzean, guztioi, irakasleoi eta gurasoei, bidali genien e-mailak
zoriontzeko eta, bide batez, gomendio batzuk emateko Gabon Ekologikoak
izan zitzaten.



Diagnostikoarekin sartu ginenean,
Diagnostikorako Patrulia berdeek ikusi zuten
nola jarraitzen zuen institutuak iaz jarri genituen
pegatinekin uraren gastua murrizteko.

Hondakinekin gure jarrera hobetzeko, alde batetik, paperaren erabilera egokia
bultzatu nahi genuen eta ostiralero ekintzarekin jarraitu eta ebaluazioa ere
egin genuen ikusteko zein taldek eraman zuen ostiralero paperontzia haren
lekura. Talde irabazleen artean zozketa bat egin genuen sariak emateko eta
animatzeko era berean jarraitzera. Bestaldetik, tinta-kartutxoak eta sakeleko
telefono zaharrak ondo botatzeko irakasleen eta gurasoen artean kanpaina bat
egin genuen instituturara ekar zitzaten eta hemendik dagokien lekura eramateko.

Gurasoen partaidetza bultzatzeko, ikasturtearen hasieran guraso askoren
e-mailak jaso genituenez, hilabetero bitan, bidaltzen diegu berriren bat
e-mailen bidez. Era honetan, institutuko Agendaren ekintzetan parte hartzeaz
gain, hobeto informatuta daude eta ez dugu hainbeste paperarik gastatzen

Lan polita egiten ari gara guztion artean, ea jarraitzen dugun,
GUZTION onurarako dela eta.

KARRANTZAKO INSTITUTOAK

ARGAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU

Karrantza Institutoak 2006-2007 kurtsotik parte hartzen du Eskolako Agenda 21 programan. Urte hauetan, hondakinak aztertu dituzte eta aurten berriz, ura lantzen hasi dira.

Udal diagnostikoa egiteko, udalerritik pasatzen diren ibaien kalitatea aztertuko dute. Ikasle bakoitzak, bere auzoko ibaiaren analisia egingo du eta ondorioak atera ondoren, ibaien egoera hobetzeko hartu behar ditugun neurriak landuko dira.

Horretaz gain, ikasteko gaiarekin erlazionatuta dauden hainbat ekintza antolatu dituzte. Argazki lehiaketa garrantzitsuena izan da ikasle askok parte hartu dute eta. Argazki irabazlea honako hau izan da:

ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA



ORTUELLAKO SAN FELIX IKASTETXEA

SAN FELIX Ikastetxetik hiru berri bidali dizkigute, Eskolako Agenda 21 prozesu honetan egiten dituzten aurrerapenak ikus ditzagun:

Ortuella Herriko Diagnostikoa (ibaiak eta estoldak)

AGENDA 21en ekintzen artean Ortuellako diagnostikoa dugu eta polita iruditu zitzaigun dauzkagun ibaiak aztertzea gero JARDUNALDI TEKNIKOAN, Otsailaren 17 an gure emaitzak erakustea. Pasa den otsailaren 17an LH 6. mailako neska mutilak kamera eta paperak hartuta ibilbidea egin genuen Galana eta Granada ibaien inguruan.



Aurreko berri batean LH 6. mailakoek kontatzen duten bezala, Otsailaren 17an udaletxean badugu Jardunaldi teknikoa deritzona. Horretarako DBH 2.mailako ikasleek oso ondo bete dute beraiei proposatutako lana, eta ez zen makala, Ortuellako auzo gehienek estolderiaren egoeraren azterketa egitea.

Ikusi genuenarekin eta lortutako datuekin udaletxean aurkeztuko gara aipatutako egunean eta honen inguruko galderak planteatuko dizkiegu udaletxeko politiko eta teknikariei.

Parque Natural de Urkiola



El pasado Miércoles día 25 de febrero, l@s alumn@s de lh3 y lh4 fuimos a visitar el Parque Natural de Urkiola. Allí nos esperaban unas monitoras para explicarnos los animales y las plantas que habitan en esa zona. Nos prepararon unos juegos muy interesantes, entre ellos uno de detectives, en el que teníamos que ir buscando huellas de animales y adivinar que animal era. Menos mal que hizo un día espléndido y pudimos ver a la bruja Mari. fue un día estupendo.



Zuhaitz Eguna



Aurten ere "ZUHAITZ EGUNA" ospatzeko asmotan Zuhaztietaraino hurbildu ginen atzo LH6. mailako neska-mutilak. Zuhaitzak landatu , jolasak egin eta mendizale bihurtuak egun ederra pasatu genuen.

ORTUELLA BHI

Goroxika

Ortuellako instituko lehen mailako ikasleak, Muxikako auzo honetan hiru egun igaro dugu natura eta ingurumen heziketan lanean. Baso eta zuhaitz motak aztertu ditugu, baserriaren egitura eta zergatia arakatu, berrerabil paper tailerrean esku lanak eta baita ere bisitak eta ibilbideak egin ditugu.

Urdaibai erreserbako biodibertsitatea ikusteko oso gustoko ibilbidea egin genuen: Sukarrietako paduraren ezaugarriak eta ekosistema honekin erlazionatuta dauden hareatzak, lezkadiak, haltzadiak eta baita ere, hegaztiak, ikusi genituen. Inguruko herrietara joan ginen: Gernikako juntaetxean bisitaldia egin genuen eta zuhaitza ere ikusi. Nahiz eta negua izan, sorte ona izan genuen eguraldiarekin eta oso ondo ibili ginen.

DBHko 1go mailako ikasleak

Ortuellako jardunaldi teknikoa

Otsailaren 17an udaletxeko areto nagusian herri osoko ikastetxeen ordezkariak bildu ginen Ortuellako alkate eta teknikariarekin. Ura gaiaren inguruan prestatu ditugun galderak erantzuteko asmoz. Ekitaldia oso interesgarria iruditu zaigu eta bideoz grabatu dugu. Jasotako informazioarekin eta irudiekin montaiak prestatzen ari gara.



ORTUELLA BHI INGURUMEN BATZORDEA

Zuhaitzaren Eguna

Zuhaitzaren Egunerako sortutako iragarkia



ZUHAITZ EGUNA ORTUELLAN

BIHAR OSTEGUNA, MARTXOAREN 12AN
LEHEN ZIKLOKO IKASLE
BATZUEKIN BARRAKOIRA JOANGO
GARA LANDAKETA EGITERA .11:50EAN
GELATIK IRTENGO DIRA ,HARA JOATEKO.

A 21 ARDURADUNA

MARTXOAREN 23an “URAREN EGUNA” OSPATU GENUEN SESTAON

Martxoaren 22an “Nazioarteko Uraren Eguna”-ren ospaketari jarraipena emanez, Sestaoko ikastetxeak, astelehenean, 23an, atera ziren herriko kaleetara, martxa baten bitartez uraren kontsumo baxuago eta arduratsuagoa aldarrikatuz.

Ikastetxeetako ikasle eta irakasleak Kuetoko Gurutzean batu ziren antolatutako “manifestaldiari” hasiera emateko. Bertatik Herriko Plazara ino luzatu zen ibilbidea, errepidearen erreil bat hartuz. Enparantzarako bidean, ikasleek, klasean eginiko kartel eta pankartak erakutsi zituzten, ura aurreztu eta iraunkorrago kontsumitzeko lemekin. Kantak ere ez ziren falta izan, ume guztiek aho batez ohiukatzen zituztenak: “Uraren eguna ospatzera gatoz” edota “hemen gaude uraren alde” etengabe entzuten zen.



Behin enparantzan, ekintzak eszenatokian burutu ziren, Felix Gonzalo Casal Zinegotziaren ongietorriaren ostean. Ikastetxe bakoitzeko ordezkariak prestatutako kantak, bertso eta hitzaldiak aurkeztu zituzten. Lehendabiziko taldea Amor Misericordiosoko ikasleak izan ziren, Begoñako Andra Marikoen ondoren zihoazela, Albizekoek hirugarren, eta azkenik Kuetoko taldea.



Ekintzari amaiera gozoa emanez, HASI Sestaoko Bertso-Eskolako bi bertsolari izan ziren mikrofono aurrean. Batak besteari hitza ematen zioten uraren kudeaketa egoki eta dezegoki bat aurrez aurre ipiniz, hauen alde positibo eta negatiboak azpimarratuz.




JORNADA TÉCNICA DE SESTAO

Los siete centros de enseñanza de Sestao involucrados en el programa de Agenda 21 Escolar se reunieron el pasado día 4 de marzo en la biblioteca municipal para celebrar una Jornada Técnica. El principal objetivo de dicha jornada fue aclarar las posibles dudas de los alumnos y alumnas a la hora de elaborar el Diagnóstico en torno al agua.

Para ello se contó con la presencia de Ana García, técnica del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia, e Itxaso Álvarez, técnica de Agenda 21 del Ayuntamiento de Sestao.

Tras una breve presentación, el turno y la palabra pasaron a ser de los estudiantes que representaban a sus respectivos centros. Una a una fueron planteando sus dudas para que fueran aclaradas en lo posible, y disponer así de la información necesaria para realizar un Diagnóstico Municipal completo que ayude a entender mejor la realidad de Sestao en cuanto a gestión del agua se refiere.





BEURKO INSTITUTOA MADRILEN

Azaroak 24an Iker Castelo ikaslea eta Isabel Molero irakaslea "Ekoparlamentu" proiektuan (Agenda 21ean) egindako liburuaren aurkezpena Madrilerara joan ziren.

Alumnos de institutos entregaron a Espinosa el libro "Jóvenes por la Sostenibilidad".



BEURKO INSTITUTOARI DAGOKIENA, 48. PROIEKTUA DA

BARAKALDOKO IKASTETXEAK ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMAN AURRERA DOAZ JARDUNALDI TEKNIKO BAT EGINEZ

Pasa den martxoaren 11an eta Eskolako Agenda 21 programaren barne, Barakaldoko Clara Campoamor kultur etxean jardunaldi tekniko bat egin zen. Jardunaldi horretan Udal Teknikariek, Barakaldoko uraren kudeaketarekin erlazioan tuta dauden aspektuak azaldu zituzten. Horretaz gain, parte hartu zuten irakasleek, aurten aukeratutako gaiaren inguruan, hau da, Uraren inguruan, izan ditzuzten zalantzak galdetu zituzten.



Behin, diagnostikoa amaituta, ikastetxeak EA21eko Ekintza Plana egiteko prest daude.